

# KOROICHO BAT

## IPARRAGIRRE URRECHUARRA-RI.



(ON JOSÉ OLANO DONOSTIAKO EUSKAL-ITZ-JOSTALDIEN DIANAGUSIARI)

Aspaldi ontan nere barrena  
zitzaidan mar, mar, mar ari,  
zerbait kantatzen ez niolako  
kantari euskaldunari;  
eta denbora joanean beren  
erasorikan lanari,  
gaur uztaitutzen diot koroicho  
bat gure Aitor onari.

Nere lan onek eztu izango  
galazko gauza ederrik,  
eztu izango zillarrik eta  
eztu izango urrerik;  
ez eta ere disdiatzeko  
diamantezko perlarik,  
oen truk ditu izango beste  
gauza denborak ekarrik.

Koroiarentzat billatu ditut  
 osto igartu gabeak,  
 aritz zarraren eskarapelak  
 eta euskara loreak;  
 berak bekostu ditzan kantari  
 euskaldun ezin obeak,  
 arbol santuba kantuz goititu  
 zuben kantaren jabeak.

Kanta dezagun kantu aundi au  
 guk ere doñu eztiyan,  
 kanta dezagun denok baturik  
 aritz zarraren azpiyan;  
 gaur makurtuba egonagatik  
 lurra jotzeko zoriyan,  
 gure dei santuz jarbailiteke  
 lenaztik zuben gloriyan.

Oraindik eztu oso berik jo  
 arbol maitatu makurak,  
 oraindik fin ta sendo daukaizki  
 lurpeko zañak egurrak;  
 oraindik osto berrituzeko  
 din indar badu bai lurrak,  
 oraindik eman litzake aritz  
 zarrak urrezko ezkurak.

¡O Joŕe Mari! bañan ¿non degu  
 guk zuk zenduben graziya,  
 zure moduban banatzekoa  
 euskal fedeko azipa?  
 ¿non zuk bezela arbol zarrari  
 nairik luzatu biziya,  
 adoratubaz jiratzekoa  
 kantari mundu guziya?

Eta arbola dala alde bat  
 ¿non degu gure euskera?

¿nork du maitatu izan zuk bezin  
su beroz gure izkera?  
zuk kantuz esan zeniguzunaz  
ongi oroitzen baikera,  
euskera galtzen bada lur ontan  
ongi izango ezkera.

Ala esan au ontzat arturik  
sinisturikan osoro,  
denok maitatu bear degu bai  
geren izkera gozoro;  
au ta onekin arbola, biyak  
ezkutatzera ezkeru,  
lur maite onek ondore onik  
ez bailezake espero.

Beragatikan biyak maiteko  
ditugu zure moduban,  
bai maitatu ta adoratuko  
ditugu beti munduban;  
etsayak inoiz galdu ez ditzan,  
bedeinkatubaz kantuban,  
biziko gera beti bi gauza  
on aundi oen kontuban.

¿Non dira berriz oez gañera  
soñu polit zuk jarriyak,  
euskal kantentzat sortzen ziñuzen  
doñu biotz-pozgarriyak?  
geroztik franko argitaratzen  
diralarikan berriyak,  
guchi gelditzen dira zureak  
beziñ aztuezagariyak.

Zuk zenekizun kantatzen penak,  
zuk itz jostalluk kantatzen,  
zuk zere kantuz euskal-erriya  
parrez jartzen ta jostatzen;

ainbesterañon ziran lur ontan  
jolas zureak gustatzen,  
errez ikasten ziralarikan  
eztira inoiz aztutzen.

Zuk zere oso maite zenduben  
gitar zarchoa besoan,  
arturik, nola erriyan ala  
mendiyan oro basoan,  
ziñan denboran jartzen kantari  
euskal izkera gozoan,  
entzunlariyak uzten zinduzen  
gutziz kontentu osoan.

Zure kantukin alegeratzen  
ziran biltoki ta errik,  
alegeratzen erriochoak,  
alegeratzen iturrik;  
zuk kantatzean pozez ardiyak,  
etzuten jaten belarrik,  
zure kantari mendiyak ere  
jartzen zizkaten belarrik.

Zure kantubak estimatubak  
dira chit euskal-erriyan,  
kantatzen dira Españian ta  
kantatzen dira. Franzian;  
Ameriketan kutuntzat daude  
badakizkite Asiyan,  
zure doñu ta kankak banatuk  
dirare mundu guziyan.

Uda berriyan lorietara  
jaisten dan gisan intz ura,  
jachitzen ziran Zerutik doai  
graziyak zure zentzura;  
eta zuk berak banaturikan  
inzensubaren modura,

ziran goititu ziñan inzenu  
gisan musaren zerura.

An ziñanean gitarchoakin  
igo Parnaso mendira,  
Apolok deitu zizun iruri  
eder angoen erdira;  
eta berari esan zioten,  
ara euskaldunen lira,  
Iparragirre kantari mundu  
danari emana jira.

Eta izen au entzun zanean  
musaren bizi tokiyan,  
segiran ango disdisten zuten  
izkribalarik erdiyan,  
arturik buru desestalikin  
errespeto chit aundiyan,  
para zinduzten euskaldunentzat  
zegon urrezko alkiyan.

Negar dizute egiten geroz,  
joan ziñalako emendik,  
negar gizonak, negar arbolak,  
negar iturri ta mendik;  
¿bañan zertako ordean negar  
egin joan arren mundutik,  
berriz lorien gisan goititzen  
baldin bazatoz lurpetik?

Aurrera bizi zaitezen jaio  
izandu ziñan erriyan,  
zure ichura zere semeak  
pistu dizute arriyan;  
eta gaur onra aundiz alcharik  
plazacho baten erdiyan,  
betiko zutik ez ilkor zera  
gelditzen euskal-erriyan.

Kopeta noble euskaldunena  
 urteetan ez chit zarra,  
 elurra beziñ zuriyak bere  
 illea eta bizarra;  
 bizkarretikan lira zinzillik  
 maitetzen zuben gitarra,  
 au da Aitor on Iparragirre  
 Urrechu-arren izarra.

¡O! Jose Mari aundiya, zure  
 seme au gaur naiz lanean,  
 jardun koroï bat eginta zuri  
 buruban para naiean;  
 bañan iristen ez naiz orrunz ta  
 mun egiñikan oñean,  
 utzitzen dizut zere oinpeko  
 oiñ arriyaren gañean.

RAMON ARTOLA.

---

## IPARRAGIRRE-RI.



Gernikako Arbola  
 Zuk kantaturikan  
 Etzan euskal-biotzik  
 Sutzen etzanikan;  
 Aztuazo nai dute,  
 Baña alperrikan;  
 Ez da sekulan joango  
 Gure gogotikan.

MIGEL ANTONIO IÑARRA-K.

